

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Hainbat herrietako udaletxeekin harremanean jarri gara eta proiektua aurrera atera dadin beraien laguntza izango dugula adierazi digute, beraz herri desberdinetan izango da kotxea hartu eta uzteko aukera. Gainera herri txikietako udaletxeek esan digute ideia bikaina iruditu zaiela, ez baitituzte hirietan dauden bezain beste garraio eskeintzeko nahikoa baliabide eta honen ondorioz herritarrak kexatzen omen zaizkie. Proiektu berri honen bidez uste dugu, herri hauetako herritarrak gustora egongo direla, nahi duten orduetan autoa hartu eta edozein tokietara joateko aukera izango baitute.

Horretaz gain, gure asmoa denborerekin, gero eta herri gehiagoen laguntza izatea da, horrela bezeroek gero eta herri gehiegotara joateko aukera izango dute, eta proiektuak fama hartuz gero beraien bizilekutik gertu gero eta geltoki gehiago izango dituzte.

Guretzako udaletxeen laguntza izatea oso garrantzitsua da, izan ere, hauek gabe ezinezkoa litzateke proiektua aurrera eramatea, azken finean, udaletxearen laguntzarik izango ez bagenu ez genuke herri desberdinetan geltokiak jartzeko aukera izango eta ondorioz, proiektua ezingo litzateke martxan jarri ez litzatekelako autoak uzteko tokirik egongo. Udaletxearen laguntza izatearen beste alde positiboa, hauek herritarrei zerbitzuaren berri emango diela da eta horrek gure enpresaren izena zabaltzeko aukera ematen du.